



## **DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, BARAÑAINGO IKASTETXEETAN 2015/2016 IKASTURTEAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK EGITEKO**

### **ATARIKOA**

Barañaingo Udalak, Hezkuntzarako eta Kirolerako Zinegotzigoaren bitartez, haren helburuen artean du: Barañaingo ikastetxeetako –ekimen publiko zein pribatu, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak legez aitortuta- ikasle eta gurasoen prestakuntza integralari laguntza ematen dioten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea. Aipatu helburua gauzatzeko baliabide ekonomikoak bideratzen zaizkie ikastetxe horiei guztiei.

Beraz, Udalak indarrean duen aurrekontuaren mugen barne, eta kontuan hartuta azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak finkatzen dituen printzipioak (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna eta bereizkeria eza), diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia proposatzen du udalak, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko, Barañaingo ikastetxeetan, 2015/2016 ikasturtean.

### **1. DEIALDIAREN AURREKONTUA, XEDEA, BALDINTZAK ETA HELBURUA**

1.1 Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, 20.000 eurokoa da (hogei mila euro), 31 42400 48900 "Subvenciones a centros educativos" kontu-sailaren arabera, indarrean dagoen 2015eko aurrekontuen barne. Zenbateko hori hiru zatitan banatzen da:

- Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Heziketa Berezia, eta, Helduentzako Oinarrizko Hezkuntza ikastetxeentzat, guztira, 18.050 €.
- Euskaltegi entzate, guztira, 1.500 €.
- Lanbide lantegi entzate, guztira, 450 €; betiere, horiek guztiek deialdi honetara aurkezten badira.

1.2 Deialdiaren xedea da, laguntza ekonomikoa ematea Barañainen dauden Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Heziketa Berezia eta Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeei (ekimen publiko zein pribatukoak, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak legez aitortutakoak), eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko. Jarduera horiek berez eskola jarduerak direnak osatuko dituzte, proiektu kurrikular berean. Zehatz-mehatz lortu nahi dena da, diruz laguntzea proiektu kurrikular bereko berez eskola jarduerak direnak osatzeko egiten diren jarduerak, besteak beste, eskola komunitateak antolatutakoak eta ikasleak dituztenak parte-hartzaile zein irteera didaktikoak, antzerkia, zinea, abesbatza, musika-entzunaldiak, eskola-aldizkaria, kirolak, arlo didaktiko ezberdinekin zerikusia duten jarduerak eta beste batzuk. Jarduera horiek guztiak, ikastordutan edota ikastorduz kanpo burutu daitezke.



### 1.3 Jardueren edukiak bideratu beharko dira segidako helburuak betetzera:

- Barañaingo ikastetxeetako – ekimen publiko zein pribatu, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak legez aitortuta- ikasle eta gurasoen prestakuntza integralari laguntza ematen dioten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea.
- Erraztasunak ematea jarduerak egiteko, ikasleen arteko harremanetarako elkarguneak ahalbidetzen dituzten jarduerak hain zuzen, laguntasuna eta elkar bizitza sustatzen dituztenak, bai ikasleen arteko harremanak bai beraien gurasoekikoak.
- Bultzatzea jarduera mota oro, eskolaz kanpokoak edo osagarriak izenarekin ezagutzen direnak orokorrean. Jarduera horiek laguntza emango diote ikasleen prestakuntza integralari.

### 1.4 2015eko irailaren 1etik 2016ko ekainaren 30a bitarte burutzen diren jarduerak dira diruz lagunduko direnak.

### 1.5 Jarduera zehatz baten gaineko zalantzak sortuko balira -deialdiaren barne ala deialditik kanpo dagoen hura, alegia- Barañaingo Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak hartuko luke erabakia, zergatikoa duen akordioaren bitartez.

### 1.6 Deialditik kanpo geratuko dira:

- Ikasleentzat edo gurasoentzat ez diren jarduerak.
- Inola ere ez dira diruz lagunduko mantenu gastuak, bazkariak, afariak, "luntxak", e.a.
- Inola ere ez da diruz lagunduko inbentarioko materiala (ordenagailuak, irratiak, altzariak, funts bibliografikoak...). Soilik lagunduko dira diruz liburu erosketak, beti ere liburu horiek zerikusi zuzena dutenean antolatutako jarduerekin (literatura topaketak, gurasoen prestakuntza...).
- Ezaugarri sexistak, arrazistak, indarkeriazkoak... dituzten jarduerak.
- Diru-sarrera propioak, eta nahikoak, dituzten eta defizitik ez duten jarduerak.
- Ageriki faltsukeriaren pean erori diren eskaerak, edo osatu gabeak agertzen direnak.
- Aurreko urteetan gastuak justifikatu ez zituzten eskaerak edo diru-laguntza bat jasotzeak dakartzan eginbideak ez zituztenak bete.

## 2. ENTITATE ESKATZAILEAK

### 2.1 Deialdi honetara aurkeztu daitezke segidako baldintzak betetzen dituzten Ikastetxeak:

- Barañáin dauden Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Heziketa Berezia eta Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeak (ekimen publiko zein pribatukoak, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak legez aitortutakoak). Era berean, aurkez daitezke, Barañáin dauden Euskaltegia eta Lanbide lantegiak.
- Barañaingo Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea, eta harekin zorretan ez egotea.

## 3. ESKAERAK AURKEZTEKO

### 3.1 Ikastetxeetako zuzendariak aurkeztu behar dituzte eskaerak.



- 3.2 Barañaingo Udaleko Herritarrendako Harrera Bulegoan (OAC) aurkeztu behar dira eskaerak, 8:30etik 14:00etara, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoak erabiliz. Eskabideak aurkezteko epemuga hogeit egunekoa izanen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.
- 3.3 Diru-laguntzetarako eskaerak Deialdian espresuki agertzen den eredu zehatzari jarraiki aurkeztu behar dira. Eskaerarekin batera segidako agiriak aurkeztu beharko dira:
- Jardueren zerrenda, I. Eranskina orriari jarraiki, diru-laguntzetara eskaera aurkezteko epemuga egunean jasota dituzuen jarduerekin, baldin eta haiei dagozkien datu nahikoak izanez gero.
  - Idatzizko konpromisoa zeinetan jasoko baita Barañaingo Udalaren armarria eta "Laguntzailea: Barañaingo Udala" esaldia agertuko direla diru-laguntza jasoko duten jardueren gaineko hedapenerako eta publizitaterako euskarrietan.
  - Ziurtagiriak zeintzuetan egiaztatuko baita betebeharrak fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean dituzuela. Baina, ez zaudetenean behartuta betebeharrak horiei dagozkien aitorpen edo agiriak egitera, Adierazpen arduratsua (II. Eranskina orriari jarraiki) egin beharko duzue.
  - Lege-ordezkararen zinpeko aitorpena zeinetan jasoko baita diru-laguntzaren deialdira aurkezten dituzten jarduerak sartuta daudela Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorrean, eta Eskola Kontseiluak onetsita.
- 3.4 Behin eskaera aurkeztuta, begiratuko da ea aurkeztu diren agiriak bat datozen oinarri hauetan eskatutakoarekin. Akats edo hutsunerik balego, horretarako, gehienez ere 10 eguneko epea emanen zaio eskatzaileari, zuzenketa eskaria jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hala egiten ez badu, eskaera bukatutzat joko da eta eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da.

#### 4. BANAKETARAKO IRIZPIDEAK

- 4.1 Aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu Barañaingo Udalak eta diru-laguntzak emango ditu ondoko irizpideei jarraituz:
- Jardueren izaera hezigarria.
  - Laguntzarik ez jasotzea beste entitate edo erakundeetatik aurrekontua ordaintzeko.
  - Aipatutako ikastetxean matrikulatuta dagoen ikasle kopurua.
  - Eskaeren kopurua.
- 4.2 Banaketa ekonomikorako ondoko irizpideei jarraituko zaie:
- 1.) Ofizialki, 2015eko irailaren 15ean, matrikulatuta dagoen ikasle kopuruaren arabera banatuko da.
  - 2.) Onartzen den aurrekontuaren portzentaje bat, kontuan izanda -arau orokor gisa- gehienez ere eman daitekeen diru-laguntza kopurua aurrekontu horri dagokion % 50 izanen dela.
- 4.3 Dena den, diru-laguntzaren zenbatekoa izanen da aurreko ataleko irizpide biak aplikatuzetik sortutako diru-kopuru txikiena.



4.4 Benetako azken kostua aurreikusi zenutena baino txikiagoa balitz, diru-laguntza proportzionalki murriztuko litzaizueke, azken diru-kopuruetara egokitzeko. Beraz, gomendatzen dizuegu zentzuzko aurrekontua aurkeztea.

## 5. DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENA

5.1 Barañaingo Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako akordioaren bidez eginen da diru-laguntza horien gaineko ebazpena, eta interesdunei jakinaraziko zaie eta Udaleko Iragarki oholean jarriko da hura. Ikastetxeek 15 eguneko epea izanen dute uko egiteko eman zaien diru-laguntzari.

5.2 Tokiko Gobernu Batzordeak akordioa hartu eta jakinarazi ondoren, emandako diru-laguntzaren % 75 ordainduko du Udalak.

## 6. DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

6.1 %25aren ordainketa (geratzen den 2. ordainketari dagokiona) bideratu ahal izateko ezinbestekoa da ikastetxeak egiaztatzea emakidaren akordioan eskatutako baldintzak bete direla eta deialdiarenak ere bai. Horretarako, eta 2016ko irailaren 30a baino lehen, Barañaingo Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoan (OAC) –Hezkuntza arlora bideratuta- ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- Gastuen justifikazioa (inprimaki zehatz baten arabera). Gastuak justifikatu behar dira fakturekin, soldata orriekin, e.a., (jatorrizkoak edo konpultsatuak) eta indarrean dauden legeen arabera, diruz lagundutako jarduerak, ordenaz, zerrendatuta. Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko inprimaki bat aurkeztu behar da.
- Adierazpena zeinetan egiaztatuko baita 7.2 ataleko betebeharrak bete direla.
- Hala balegokio, kontzeptu berarengatik jasotako diru-laguntzen egiaztagiria zeinetan zehaztuko baita zeintzuk diren diru-laguntza jaso duten jarduerak. Lege-ordezkarriak izenpetutako agiria aurkeztu behar da zeinetan zehaztuko baita: jasotako diru-laguntza, zein jardueretara bideratu den hura, aurrekontua, diru-sarrerak eta defizita. Beste diru-laguntza batzuk jaso dituzten jarduerak ez dute izanen Udalaren diru-laguntza jasotzeko aukerarik, jasotako diru-laguntzarekin defizita erabat estali gabe geratu izan ezean.

6.2 Diru-laguntzari dagokion justifikazioa aurkeztu eta gero, deialdi honetako baldintzekin bat datorrela egiaztatuko du Udalak.

## 7. BETEBEHARRAK

7.1. Diruz lagundutako jarduerak aldaketaren bat jasanez gero, derrigorrez jakinarazi beharko dio hura Hezkuntza Arloari.

7.2. Eskatzaileek derrigorrez agerrarazi beharko dute Barañaingo Udalaren armarrria eta "Laguntzailea: Barañaingo Udala" esaldia, diru-laguntza jasoko duten jarduerari dagozkien hedapen eta publizitate euskarrietan.



## **8. BALIZKO EZBETETZEAK ETA ONDORIOAK**

Hartutako diru guztia edo zati bat itzuli beharko da eta dagokion berandutza korritua diru-laguntza ordaindu zenetik aitzina ordaindu, honako kasu hauetan:

- a) Diru-laguntza zer xedetarako eman zen, helburu hura ez betetzea.
- b) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- c) Jasotako dirua zertan erabili den erakutsi beharra ez betetzea.
- d) Batera ezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- e) Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzea edo ez betetzea.
- f) Deialdi honetan aipatzen diren egiaztapen egintzei trabak jartzea eta horiei men egin beharra ez betetzea.
- g) Beste kasu batzuk, berariazko arau edo oinarrietan arautuak.

Organo emaileak hartuko du diru-laguntza itzultzeari buruzko erabakia, alde zuzenetik espedientea instruiturik, aplikatzekoa den legeria orokorrarekin bat.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta horiek kobratzeko, diru-bilketari buruz indarra duen araudian xedatzen dena aplikatuko da.

## **9. ONARTZEA ETA INTERPRETATZEA**

9.1. Deialdi honetan parte hartzeak bertako baldintza guztiak onartzea dakar.

9.2. Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio baldintzak interpretatzea, haien alderdi guztiak barne.

## **10. ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK**

Diru-laguntzen eta laguntza publikoen arau-hauste eta zehapenei dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorraren bigarren Xedapen Iragankorreko 4. puntuan eta Lege bereko IV. Tituluan xedatutakoak aginduko du.

## **11. DIRU-LAGUNTZETARAKO ARAUDIA**

Honako Deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurrez ikusi ez den orotan, aginduko du ondoko araudiak: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Barañaingo Udalaren diru-laguntza emateak arautzen dituen Ordenantza; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta diru-laguntzei buruzko Estatuko Araudia.

*Barañáin, 2015eko urriaren 26.*